

“ARABAKO KALKULU GUNEA SA” **URTEKO KONTUEN MEMORIA - 2018ko EKITALDIA**

1. OHARRA. IZAERA ETA JARDUERA NAGUSIAK

Arabako Kalkulu Gunea SA (hemendik aurrera sozietatea) foru sozietate publiko gisa eratu zen 1989ko uztailaren 26ko eskritura baten bidez. Hala, Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak urte bereko martxoaren 14ko bilkuran onartutako 509. zenbakiko Foru Dekretuan ezarritakoa bete zen.

Hau da sozietatearen helbidea: Probintzia plaza zk.g., 01001 Gasteiz, Araba.

Hauk dira sozietatea arautzen duten xedapenak: 15/87 Foru Araua; Kapitaleko sozietateen Legea, zeinaren testu bateratua uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi baitzen; eta beste lege xedapen osagarri batzuk.

Sozietatearen iraupena mugagabea da eta haren xedea eta jarduera nagusia informatikako ustiapen eta garapenarekin zerikusia duten zerbitzuak ematea da, baita zerbitzari, erabiltzaile edo txartel euskarrien ziurtapena eta elektronikoa, informatika eta telematikako bide eta tekniken bidezko komunikazioen segurtasuna, baliozkotasuna eta eragin-kortasuna bermatzera zuzendutako zerbitzuak ere. Fakturazioa Arabako Foru Aldundiari –akziodun bakarra– eta Arabako Lurralde Historikoko beste erakunde publiko batzuei egiten zaie batik bat (11. oharra).

Sozietateak bere eragiketetan erabiltzen duen diru funtzionala euroa da.

2. OHARRA. AURKEZPEN OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Indarreko legeria betez, Sozietatearen administratzaileek 2018ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzte, Sozietatearen 2018ko abenduaren 31ko kontabilitate erregistroetan oinarrituta. Kontu horietan, Kontabilitateko Plan Orokorra onesten duen 1514/2007 Errege Dekretuak eta kontabilitate arloan indarra duten gainerako lege xedapenek ezarritako kontabilitate printzipioak eta balorazio irizpideak erabili dira, eta, beraz, ondarearen, finantza egoeraren, sozietatearen emaitzen, ondare garbian izandako aldaketen eta ekitaldian izandako eskudiru fluxuen irudi zehatza azaltzen dute. Gainera, aurkezpena egiteko, kontuan hartu da 8/2014 Foru Dekretuak onetsi duen eredia.

Irudi zehatza erakuste aldera kontabilitate arloko lege xedapenak ez aplikatzeko arrazoi berezirik ez dago.

Sozietatearen administratzaileek uste dute 2018ko ekitaldiko kontuak aldaketa handirik egin gabe onetsiko dituela Arabako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak. Izan ere, Diputatuen Kontseiluak dauka Akziodunen Batzar Nagusia eratzeko eskumena eta berak hartu ditu haren eskumenak, Arabako Lurralde Historikoko 15/1987 Foru Arauaren 18. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik. Diputatuen Kontseiluak 2018ko ekainaren 19an egindako bilkuran onetsi zituen 2017ko ekitaldiko kontuak.

2.2. Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa betez egin ditu Sozietateak bere finantza egoerak; izan ere, ez da egon hurrengo ekitaldiko aktiboen edo pasiboen balioan aldaketa esanguratsurik eragingo duen arrisku garrantzitsurik.

Erantsitako urteko kontuetan Sozietatearen zuzendaritzak egindako zenbatespenak erabili dira, batzuetan, bertan erregistratuta agertzen diren aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk kalkulatzeko. Nagusiki, hauen gainekoak dira zenbatespen horiek:

- Aktibo materialen eta ukiezinen bitzita baliagarria (5. oharra eta 6. oharra)
- Enpresa elkartuetako partaidetzen balioaren narriadura (8.1 oharra)
- Emandako dirulaguntzen aplikazioa (12. oharra)

Zenbatespen hauek aztertutako gaien inguruan zegoen informaziorik onena baliatuz egin ziren, urteko kontu hauek formulatzeko garaian; hala ere, baliteke etorkizuneko balizko gertakizunek horiek aldatu beharra ekartzea (gorantz edo beherantz) hurrengo ekitaldietan. Era prospektiboan egingo litzateke hori, onartuz zenbatespena aldatzearen eraginak etorkizuneko dagozkien galera-irabazien kontuetan.

2.3. Informazioa alderatzea

Merkataritzako Kodearen 35.6 artikuluan xedatutako betebeharraren ondorioetarako eta berdintasun printzipioa eta alderagarritasun baldintza aplikatzearen ondorioetarako, administratzaileek, balantzearen, galera-irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoeraren, eskudiru fluxuen egoeraren eta urteko kontuei buruzko memoria-ren partida bakoitzarekin, 2018ko ekitaldiko kopuruez gain, 2017koak aurkeztuko dituzte, alderatzeko. Bi ekitaldietako partidak alderatu egin daitezke.

Enpresa legez behartuta dago 2017ko eta 2018ko ekitaldietako urteko kontuen auditoria egitera. Bi ekitaldietako urteko kontuei auditoria egin zaie.

2.4. Partida bat baino gehiagotan jasotako elementuak

Balantzearen, galera-irabazien kontuaren, ondare garbian izandako aldaketen egoeraren eta eskudiru fluxuen egoeraren partida jakin batzuk multzoka aurkezten dira, errazago uler daitezzen, nahiz eta memoriako zenbait oharretan informazio xehakaturia erantsi den, garrantzitsua den neurrian.

2.5. Aldaketak kontabilitate irizpideetan

2018ko ekitaldian ez da gauzatu urteko kontuen inguruko doikuntzarik kontabilitate irizpideen aldaketengatik.

2.6. Hutsen zuzenketa

2018ko ekitaldiko urteko kontuek ez dute jasotzen ekitaldian antzemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

2.7. Garrantzi erlatiboa

Finantza egoeren edo beste gai batzuen gaineko partiden memoria honetan banakatu beharreko informazioa zehaztean, Sozietateak 2018ko ekitaldiko urteko kontuei lotutako garrantzi erlatiboa hartu du kontuan, Kontabilitateko Plan Orokorren kontzeptu esparruaren arabera.

3. OHARRA. EMAITZEN APLIKAZIOA

Honako hau da Sozietateko Administrazio Kontseiluak egin duen eta Akziodunen Batzar Nagusiak onetsi beharko duen 2018ko ekitaldiko emaitzaren aplikazioaren proposamena (eurotan):

Banaketa oinarria	
Ekitaldiko galerak eta irabaziak (irabazia)	3.456,26
Banaketa	
Legezko erreserba	345,62
Borondatezko erreserbak	3.110,64

4. OHARRA.- ERREGISTRO ETA BALORAZIO ARAUAK

Sozietatearen urteko kontuak formulatzean aplikatu diren kontabilitateko irizpide eta arau garrantzitsuenak jarraian deskribatzen diren hauek dira:

4.1. Ibilgetu ukiezina

Ibilgetu ukiezina, zeina informatika aplikazioak eskuratzeari dagokion, eskuratzeko kostuan balioesten da, eta bere amortizazio metatutik garbi aurkezten da. Amortizazio hori % 20ko amortizazio koefizientea aplikatuz kalkulatzen da. Koefiziente hori ustez sarrerak lortzeko behar den bitzita baliagarriaren baliokidea da. Guztiz amortizatuta dago.

Sozietateak erabiltzen dituen aplikazio informatiko gehienak Arabako Foru Aldundiarenak dira.

4.2. Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala kostuko balioan aurkezten da, dagozkion amortizazio metatuak kenduta.

Ibilgetuaren zati bat sozietatea eratu zenean Arabako Foru Aldundiak ekarritako ondasunen zenbatekoari dagokio, bidezko amortizazioak kenduta. Ondasun horien balioa bat dator Arabako Kalkulu eta Informazio Lanketarako Gunearen Partzuergoaren finantza egoeraren orrietan ekarpena egin zen egunean erregistratuta zegoen kontabilitateko balio garbiarekin.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa abian jartzeko eskuragarri daudenetik egiten da, hain zuzen, modu linealean balioetsitako bitzita erabilgarrian zehar. Hala, hondar balioa hutsa izango dela zenbatesten da, balioetsitako bitzita erabilgarriaren ondorengo urteen arabera:

	Bitzita baliagarriaren urteak
Instalazio teknikoak	5
Makineria	7
Beste instalazio batzuk	10
Altzariak eta tresnak	7

Ibilgetu materialak mantentzeko eta konpontzeko gastuak, ibilgetu horiek hobetzen edo beren bitzita baliagarria luza-tzen ez badute, galera eta irabazien kontuan kargatzen dira sortzen diren unean.

Sozietateak zerbitzuak emateko erabiltzen dituen ondasunen zati handi bat Arabako Foru Aldundiarena da.

4.3. Finantza tresnak

Erakundeak finantza tresnen kapituluan finantza-aktiborako eta, aldi berean, finantza-pasiborako edo sozietatean ondare baliabiderako bidea ematen duten kontratuak erregistratuta ditu. Bai eta ere beste enpresa batean finantza-aktiborako eta, aldi berean, sozietatean finantza-pasiborako bidea ematen duten kontratuak. Beraz, honako hauek dira finantza tresnak:

- a) Finantza-aktiboak:
 - Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.
 - Kredituak, merkataritza eragiketengatik: bezeroak eta askotariko zordunak.
 - Beste enpresa batzuetako ondare tresnak: inbertsioak enpresa elkartuen ondarean.
 - Beste finantza-aktibo batzuk: eraturako gordailu eta fidantzak, eta langileentzako aurrerakin eta kredituak.
- b) Finantza-pasiboak:
 - Kredituak, merkataritza eragiketengatik: hornitzaileak eta askotariko hartzekodunak.
 - Beste finantza-pasibo batzuk: zorrak langileekin

4.3.1. Finantza-aktiboak

Finantza-aktiboak beren epemugen arabera sailkatzen dira, hau da, hamabi hilabeteren buruan edo arinago amaitzen direnak korronteak dira eta epe luzeagoa dutenak ez korronteak.

*** Hasierako balorazioa**

Hasiera batean, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio kostuen baturan erregistratzen dira finantza-aktiboak. Baloraziorako, honako kategoria honetan sailkatzen dira:

- *Kobratu beharreko mailegu eta partidak: enpresaren trafiko eragiketen ondoriozko ondasunen salmentan edo zerbitzuen prestazioan sortutako finantza-aktiboak, edo merkataritzako jatorririk izan ez arren, ondare tresnak eta eratorriak ez direnak eta zenbateko finko edo zehatzeko kobrantzak dituztenak, azken horiek merkatu aktiboan negoziatzen ez direlarik. "Merkataritza zordunak eta kobratu beharreko besteko kontu batzuk" epigrafeetan erregistratutako aktiboak dira kategoria hau osatzen duten gehienak.*
- *Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak: Taldeko enpresatzat jotzen dira kontrol harremanen batez bidez Sozietatearekin lotuta daudenak eta, enpresa elkartzat, bestetik, Sozietatearen eragin nabarmena jasaten dutenak.*
- *Eratutako gordailu eta fidantzak.*

***Ondorengo balorazioa**

Kobratu beharreko mailegu eta partidak beren amortizatutako kostuaren arabera baloratzen dira, interes tasa efektiboaren metodoaren bidez. Hala ere, honako baldintza hauek betetzen dituzten finantza-aktiboak balio izendatuaren arabera baloratzen dira: interes tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Ekitaldia ixtean behintzat, Sozietateak narriadurari buruzko testa egiten du, arrazoizko balioan erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriadura dagoela ezarri ahalko da, baldin eta finantza-aktibotik berreskuratu daitekeen

balioa liburutuan duen balioa baino baxuagoa bada. Halakorik gertatzen bada, narriadura horren erregistroa galera-irabazien kontuan erregistratuko da.

Bigarren mailako merkatu antolatuan kotizatzeke onartu ez diren taldeko enpresen partaidetzak zenbatzeko, eskuratzeko prezioa hartuko da kontuan, edota kontabilitateko balio teorikoa, azken hori lehenengoa baino txikiagoa bada. Hori horrela, bere balioa zuzentzeko beharrezko hornidurak zuzkituko dira, partaidetutako sozietatearen funts propioen bilakaeran arreta jarriko da eta dauden gainbalioak kontuan hartuko dira.

4.3.2. Finantza-pasiboak

Finantza-pasibo deitzen zaie sozietateak ordaintzeko dituen eta enpresaren trafiko eragiketen ondoriozko ondasun eta zerbitzuen erosketan sortu diren zor eta partidei edo merkataritzako jatorririk izan ez arren eratorritako finantza tresna gisa ulertu ezin direnei.

Ordaindu beharreko zor eta partidak jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera baloratzen dira hasieran, zuzenean egotz daitezkeen transakzioen kostuen bidez egokituta. Hasierako onarpenaren ondoren, kategoria honetan sailkatutako pasiboak kostu amortizatuan baloratzen dira, interes tasa efektiboaren metodoaz. Hala ere, honako baldintza hauek betetzen dituzten finantza-pasiboak balio nominalaren arabera baloratzen dira: interes tasa ezarrita ez badute, horien zenbatekoa amaitu egiten bada edo epe laburrean jasotzea espero bada eta eguneratzearen ondorioa adierazgarria ez bada.

Finantza-pasiboak beren epemugen arabera sailkatzen dira, hau da, hamabi hilabeteren buruan edo arinago amaitzen direnak pasibo korronteak dira, eta epe luzeagoa dutenak ez korronteak.

Sozietateak baja ematen die finantza-pasiboari, baldin eta haiek sortu zituzten betebeharrak amaitu badira.

4.4. Mozkinen gaineko zerga

Mozkinen gaineko zergaren gastuak edo sarrerak barnean hartzen ditu zerga arruntaren gastuari dagokion zatia eta zerga geroratuaren gastuari edo sarrerari dagokiona.

Mozkinen gaineko zergaren ekitaldi bati dagozkion likidazio fiskalen ondorioz sozietateak ordaintzen duen zenbatekoa da zerga arrunta. Zerga arruntaren zenbatekoa murriztea eragiten dute honako hauek: zergaren kuotan ezarritako kenkariak eta beste zerga abantaila batzuek, atxikipenak eta konturako ordainketak kanpo utzita; eta aurreko ekitaldietako zerga galera konpentsagarriak, ekitaldi honetan benetan aplikatu direnak.

Zerga geroratuaren ondoriozko gastuak edo sarrerak zerga geroratuaren aktibo eta pasiboen aitortzearen eta kitapenetatik datoz. Horien barruan sartzen dira denbora diferentziak, alegia, aktibo eta pasiboen kontabilitate zenbatekoen eta haien zerga balioaren arteko aldeetatik eratorriak diren eta ordaintzekoak edo berreskuragarriak direla aurreikusten diren zenbatekoak; eta zerga arloan ezarri ez diren zerga kenkariaren ondoriozko kredituak. Zenbateko horiek erregistratzeko, denbora diferentziari edo dagokion kredituari berreskuratzea edo likidatzea espero den karga tasa aplikatzen zaio.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak denbora diferentzia zergapegarri guztietarako onartzen dira, salbu merkataritza funtsen edo beste aktibo zein pasibo batzuen hasierako onarpenetik eratorriak direnak, zerga emaitzan eta kontabilitate emaitzan eraginik ez duten eta negozio konbinazio ez diren eragiketetan; eta mendeko enpresetan, enpresa elkartuetan eta baterako negozioetan egindako inbertsioei loturikoak, zeinetan Sozietateak kontrola dezakeen noiz leheneratu eta litekeena den ez leheneratzea aurreikus daitezkeen etorkizunean.

Bestalde, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak onartzen dira, baldin eta Sozietateak, etorkizunean, horiek erabiltzeko adina zerga irabazi izango duela uste bada.

Orobat, zerga geroratuen ondoriozko aktiboak eta pasiboak, ondare kontuetan zordunketa edo ordainketa zuzenak egitea dakarten eragiketetatik sortuak, ondare garbian kontabilizatzen dira, kontrapartidarekin.

Kontabilitatearen itxiera bakoitzean, berriz aztertzen dira erregistratutako zerga geroratuen ondoriozko aktiboak, eta behar diren zuzenketak egiten zaizkie, etorkizunean berreskuratu daitezkeen ala ez zalantza dagoen heinean. Halaber, kontabilitatearen itxiera bakoitzean, balantzean erregistratu ez diren zerga geroratuen ondoriozko aktiboak balioztatzen dira, eta onartu egiten dira etorkizuneko onura fiskalekin berreskuratzea litekeena den neurrian.

4.5. Sarrerak eta gastuak

Sozietatearen diru sarrerak Arabako Foru Aldundiari eta horrek gehiengoko partaidetza duen enpresa eta erakundeei egindako zerbitzuetatik datoz.

Diru sarrerak eta gastuak sortzapenaren irizpidearen arabera egozten dira, hau da, dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrontea gertatzen denean egozten dira, kontuan hartu gabe noiz gertatzen den haien ondoriozko diru edo finantza korrontea.

4.6. Hornidurak eta kontingentziak

Sozietateak honako pasibo hauek onartzen ditu horniduratzat: kontabilitateko kontzeptuen esparruko definizioa eta erregistroko edo onarpenerako irizpideak betetzen dituztela, zenbatekoa edo kitatze data zehaztu gabe dutenak.

Ez da balioetsi aurreko irizpideak betetzen dituen pasiborik.

4.7. Langileen gastuak erregistratzeko erabili diren irizpideak

Indarrean dagoen hitzarmen kolektiboaren arabera, erretiro aurreratua hartzen duten sozietateko langileek sari bat jasoko dute. Haren zenbatekoa zehazteko bi faktore hartuko dira kontuan: batetik, eskubidea eskatzen duten egunean jasotzen dituzten soldadak eta lansariak; bestetik, egun horretatik nahitaez erretiratu arte (gaur egun 65 urterekin) falta diren urteak. Kontzeptu hori dela-eta ordainketarik egin behar bada, gastuetan sartzen dira erabakia hartzen den unean bertan.

4.8. Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

Itzuli behar ez diren kapitaleko dirulaguntzak emandako zenbatekoaren arabera balioesten dira. Hala, hasiera batean, ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreratzat jo eta emaitzei egozten zaizkie, ekitaldian aipatu dirulaguntzek finantzatutako aktiboen ondotik jazotako balio galeraren arabera, balioa gal ez dezaketen aktiboak ez badira. Hori dela eta, azken kasu horretan, besterentzea edo inbentarioko baja gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Itzuli beharreko dirulaguntzak diren bitartean, dirulaguntza bihur daitezkeen epe luzerako zor gisa kontabilizatuko dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko diru sarrera moduan egotziko dira. Gainera, 18. erregistro eta balorazio arauak (NRV) ezartzen duen moduan, dirulaguntza finantza-aktiboak eskuratzeko eman bazen, diru sarrera gisa egotziko da besterentzea, narriaduraren ondoriozko balio zuzenketa edo balantzeko baja gertatzen den ekitaldian.

4.9. Lotura duten alderdien arteko transakzioetan erabilitako irizpideak

Merkatuko balioa aplikatzen da, kostu gehituaren irizpidea erabiliz.

5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

Partida honetan ez da gertatu aldaketarik 2018ko eta 2017ko ekitaldietan zehar; hona xehetasunak (eurotan):

KOSTUA	Aplikazio informati-koak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko urtarrilaren 1ean	42.861,18	42.861,18
Altak	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Altak	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18

AMORTIZAZIO METATUA	Aplikazio informati-koak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko urtarrilaren 1ean	42.861,18	42.861,18
Zuzkidura	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Zuzkidura	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18

BALIO GARBIA	Aplikazio informati-koak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Amortizazio metatua	(42.861,18)	(42.861,18)
Balio garbia 2017ko abenduaren 31n	0,00	0,00
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	42.861,18	42.861,18
Amortizazio metatua	(42.861,18)	(42.861,18)
Balio garbia 2018ko abenduaren 31n	0,00	0,00

Arabako Foru Aldundiarenak dira sozietateak erabiltzen dituen eta aurreko taulan adierazten ez diren gainerako aplikazio informatikoak.

6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA

Egoera balantzeko kapitulu honetan mugimendu hauek izan dira 2018ko eta 2017ko ekitaldietan (eurotan):

KOSTUA	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak	Uneko ibilgetua eta aurre-rakinak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko urtarrila-ren 1ean	96.698,35	0,00	96.698,35
Altak	56.766,13	309.739,69	366.505,82
Intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	153.464,48	309.739,69	463.204,17
Altak	0,00	309.739,66	309.739,66
Intsuldaketak	619.479,35	(619.479,35)	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	772.943,83	0,00	772.943,83

AMORTIZAZIO METATUA	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak	Uneko ibilgetua eta aurre-rakinak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko urtarrila-ren 1ean	96.698,35	0,00	96.698,35
Zuzkidura	0,00	0,00	0,00
Intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	96.698,35	0,00	96.698,35
Zuzkidura	46.975,23	0,00	46.975,23
Intsuldaketak	0,00	0,00	0,00
Bajak	0,00	0,00	0,00
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	143.673,58	0,00	143.673,58

BALIO GARBIA	Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetuak	Uneko ibilgetua eta aurre-rakinak	GUZTIRA
Saldoa 2017ko abenduaren 31n	153.464,48	309.739,69	463.204,17
Amortizazio metatua	(96.698,35)	0,00	(96.698,35)
Balio garbia 2017ko abenduaren 31n	56.766,13	309.739,69	366.505,82
Saldoa 2018ko abenduaren 31n	772.943,83	0,00	772.943,83
Amortizazio metatua	(143.673,58)	0,00	(143.673,58)
Balio garbia 2018ko abenduaren 31n	629.270,25	0,00	629.270,25

Sozietatearen jardura osatzen duten zerbitzuen prestazioa, nagusiki, ondasun ibilgetu materialak erabiliz egiten da. Horien titularra Arabako Foru Aldundia da, sozietatearen akziodun bakarra.

Erabat amortizatu diren eta oraindik erabiltzen diren ibilgetu materialaren elementuen zenbatekoa honako hau da (eurotan):

	31.12.2018	31.12.2017
Makineria	16.424,52	16.424,52
Altzariak	80.274,56	80.274,56
Gutziz amortizatutako ibilgetu materiala	96.699,08	96.699,08

7. OHARRA.- TALDEKO ENPRESETAN, TALDE ANITZEKO ENPRESETAN ETA ENPRESA ELKARTUETAN EGINDAKO INBERTSIOAK

“Taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak” epigrafea honela banatzen da (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Epe luzerako partaidetzak enpresa elkartuetan	176.379,19	176.379,19
Enpresa elkartuetako epe luzerako partaidetzen balio narriadura	(20.699,48)	(20.981,50)
	155.679,71	155.397,69

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, “Epe luzerako partaidetzak enpresa elkartuetan” partidaren zenbateko osoa Arabako Kalkulugunea SAK Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa – IZENPE SA merkataritza sozietatearen ondare garbian daukan inbertsioari dagokio. Hona hemen horren osaera (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
2002an egindako erosketa, 1.659 akzio, 60,00 euro bakoitza	99.540,00	99.540,00
2010ean egindako ekarpena, 2009ko ekitaldiko galerak konpentsatzeko	45.189,42	45.189,42
2011n egindako ekarpena, 2010eko ekitaldiko galerak konpentsatzeko	31.649,77	31.649,77
	176.379,19	176.379,19

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, IZENPE SAK ez du kotizatzen burtsan, eta bere jarduera nagusia da segurtasun tekniko eta administratiborako zerbitzuak ematea teknika eta bide elektroniko, informatiko eta telematikoetatik egiten diren komunikazioetan, euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeen esparruan.

Eskatutako gainerako informazioa taula honetan dago:

Izena	Helbidea	E. juridikoa	Kapitalaren %		Boto eskubideen %	
			Zuzenekoa	Zeharkakoa	Zuzenekoa	Zeharkakoa
IZENPE SA	Araba	S. Anonimoa	% 8,295	% 0,000	% 8,295	% 0,000

Sozietateak Izenpe SA enpresaren kapitalaren % 8,295 baino ez badauka ere (alegia, % 20 baino gutxiago), azken hori enpresa elkartutzat jotzen da. Izan ere, sozietateak eragin nabarmena du beragan, enpresa partaidearen administrazio kontseiluko ordezkartzan ikus daitekeen bezala.

2018ko abenduaren 31ko datuak IZENPE SAK emandako finantza egoerei buruzkoak dira, eta partaidetutako sozietatearen akziodunen batzar nagusiak onesteko zain daude. Hauek dira datuak (eurotan):

IZENPE SA				ARABAKO KALKULU GUNEA SA		
Sozietatearen kapitala	Erreserbak eta emaitzak Aurreko ekitaldiak	Ekitaldiko emaitza	Ondare garbia guztira 2018.12.31n	Partaidetzaren balio teorikoa 2018.12.31n	Partaidetzaren kontabilitateko balioa 2018.12.31n	2018an jasotako dibidenduak
1.200.000,00	676.789,78	11.854,20	1.888.643,98	156.663,02	176.379,19	0,00
Narriaduragatiko galera 2018ko ekitaldiaren amaieran					(20.699,48)	
Epe luz. inb. enpr. elkartuetan, guztira, 2018.12.31n					155.679,71	

Hona hemen 2017ko abenduaren 31ko datuak, Izenpe SAK onestitako azkeneko urteko kontuei dagozkienak, eurotan:

IZENPE SA				ARABAKO KALKULU GUNEA SA		
Sozietatearen kapitala	Erreserbak eta emaitzak Aurreko ekitaldiak	Ekitaldiko emaitza	Ondare garbia guztira 2017.12.31n	Partaidetzaren balio teorikoa 2017.12.31n	Partaidetzaren kontabilitateko balioa 2017.12.31n	2017an jasotako dibidenduak
1.200.000,00	673.389,92	3.399,86	1.876.789,78	155.679,71	176.379,19	0,00
Narriaduragatiko galera 2017ko ekitaldiaren amaieran					(20.981,50)	
Epe luz. inb. enpr. elkartuetan, guztira, 2017.12.31n					155.397,69	

2018ko ekitaldian sozietateak mozkinak izan ditu Izenpe SAN duen partaidetzaren narriadura leheneratzeagatik. Horrek 282,02 euroko diru sarrera ekarri du (53.994,33 eurokoa, 2017an), eta galera eta irabazien kontuan jasotzen da, "Narriadura eta emaitza, finantza baliabideak besterentzearen ondorioz" epigrafean.

Sozietateak 2002an 99.540,00 euroko dirulaguntza jaso zuen Izenpe SAREN 1.659 akzio eskuratzeko. Honako zenbait hauek intsuldatu dira emaitzetara 2015eko abenduaren 31ra arte:

- 2009an 44.602,30 euro intsuldatu ziren emaitzetara, partaidetzaren 2009.12.31ko balio narriadurari zegozkionak.
- 2013an 12.573,89 euro intsuldatu ziren emaitzetara, partaidetzaren 2013.31ko balio narriadurari zegozkionak.

Taldeko enpresen, talde anitzeko enpresen eta enpresa elkartuen inbertsioen ondorioz sortutako balio narriaduren zuzenketak honako hauek dira (eurotan):

	Epe luzeko ondare tresnak
Narriaduraren ondoriozko galera, 2017ko ekitaldiaren hasieran	(74.975,83)
(+) Narriaduraren ondoriozko balio zuzenketa	0,00
(-) (-) Narriadura lehengoratzea	53.994,33
(-)Irteerak eta txikitzeak	0,00
Narriaduragatiko galera 2017ko ekitaldiaren amaieran	(20.981,50)
(+) Narriaduraren ondoriozko balio zuzenketa	0,00
(-) (-) Narriadura lehengoratzea	282,02
(-)Irteerak eta txikitzeak	0,00
Narriaduragatiko galera 2018ko ekitaldiaren amaieran	(20.699,48)

2018ko eta 2017ko ekitaldiak ixtean, epe luzerako finantza tresnen narriaduraren ondoriozko balio zuzenketen zenbateko osoa lizenpe SA enpresa elkartuarena da.

8. OHARRA. FINANTZA TRESNAK

8.1. Finantza-aktiboak

Ekitaldian finantza-aktibo ez korrante mota bakoitzerako mugimenduak honela sailkatu dira:

	Kredituak, eratorriak eta bestelakoak
Saldoa, 2017ko ekitaldiaren hasieran	1.235,70
(+) Altak	16.973,28
(-)Irteerak eta txikitzeak	0,00
(+/-)Intsuldaketak eta beste aldakuntza batzuk	-8.661,72
2017ko ekitaldiko azken saldoa	9.547,26
(+) Altak	0,00
(-)Irteerak eta txikitzeak	0,00
(+/-)Intsuldaketak eta beste aldakuntza batzuk	-7.426,02
2018ko ekitaldiko azken saldoa	2.121,24

Honako hau da epe luzerako balantzearen aktiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, kontuan hartu gabe taldeko enpresetan, talde anitzeko enpresetan eta enpresa elkartuetan egindako inbertsioak, mota eta kategoriatan sailkatuta (eurotan):

KATEGORIAK	MOTAK			
	Bestelako kreditu eratorriak		GUZTIRA	
	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Kobratu beharreko partidak eta maileguak	2.121,24	9.547,26	2.121,24	9.547,26
GUZTIRA	2.121,24	9.547,26	2.121,24	9.547,26

Honako hau da Sozietatearen epe laburrerako balantzearen aktiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk kontuan hartu gabe, mota eta kategoriatan sailkatuta (eurotan):

KATEGORIAK	MOTAK			
	Bestelako kreditu eratorriak		GUZTIRA	
	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Kobratu beharreko partidak eta maileguak	2.375.233,11	2.865.076,67	2.375.233,11	2.865.076,67
GUZTIRA	2.375.233,11	2.865.076,67	2.375.233,11	2.865.076,67

Hona hemen "Kobratu beharreko partidak eta maileguak" epigrafearen xehetasunak (eurotan):

	2018ko ekitaldia		2017ko ekitaldia	
	Epe laburra	Epe luzea	Epe laburra	Epe luzea
	Langileei emandako kreditu eta aurrerakinak (8.1.1 oharra)	7.863,93	2.121,24	9.262,07
Salmenta eta zerbitzuen ziozko bezeroak	1.160,00	0,00	1.160,00	0,00
Taldeko enpresen eta enpresa elkartuen bezeroak (13.2 oharra)	2.366.209,18	0,00	2.854.654,60	0,00
GUZTIRA	2.375.233,11	2.121,24	2.865.076,67	9.547,26

8.1.1. Hirugarren batzuei emandako kredituak

Sozietateko langileek maileguak eta nominaren aurrerakinak jasotzeko eskubidea dute, lan hitzarmenean ezarritako baldintzei lotuta.

Balantzeko zenbatekoa nominaren aurrerakinei dagokie batik bat. Hitzarmenean baldintza hauek ezarri dira aurrerakinak jaso ahal izateko:

- Gehieneko zenbatekoa: 6.365,00 euro.
- Itzultzeko hiru aukera: 12, 24 edo 36 hilabetetan.

8.2. Finantza-pasiboak

Hona hemen epe laburrerako balantzearen pasiboaren finantza tresnei buruzko informazioa, mota eta kategoriatan sailkatuta (eurotan):

KATEGORIAK	MOTAK			
	Bestelako kreditu eratorriak		GUZTIRA	
	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Ordaindu beharreko partidak eta zorrak	1.086.718,69	2.004.900,37	1.086.718,69	2.004.900,37
GUZTIRA	1.086.718,69	2.004.900,37	1.086.718,69	2.004.900,37

Hauk dira “Ordaindu beharreko partidak eta zorrak” epigrafearen xehetasunak (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Beste finantza-pasibo batzuk	62.912,77	56.094,63
Hornitzaileak	1.023.805,92	1.948.805,74
GUZTIRA	1.086.718,69	2.004.900,37

“Beste finantza-pasibo batzuk” partida honela osatuta dago 2018ko abenduaren 31n:

- Elkarkidetzak kudeatzen duen pentsio planerako 35.118,16 euroren ekarpenak (31.900,98 euro 2017ko abenduaren 31n).
- Arabako Foru Mutualitaterako 2.423,07 euroren ekarpenak (2.278,36 euro 2017ko abenduaren 31n).
- Epe laburrerako jasotako 25.371,54 euroren fidantzak (21.915,29 euro 2017ko abenduaren 31n).

8.3. Arriskuak kudeatzeko politika

Sozietatearen jarduerak hainbat finantza arrisku dituzte: merkatuko arriskua, kreditukoa, likideziakoa eta interes tasen arriskuak eskudiru fluxuetan.

Hala ere, praktikan sozietateko akziodun bakarrak estaltzen ditu arrisku horiek.

9. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

Partida horren bilakaera ekitaldian hau izan da (eurotan)

	2017ko ekitaldia	Gehitzeak	Gutxitzeak	Banat. Aurreko ekitaldiko emaitzak	2018ko ekitaldia
Kapital harpidetua (9.1 oharra)	1.808.162,59				1.808.162,59
Legezko erreserba (9.2 oharra)	1.101,35			5.134,36	6.235,71
Beste erreserba batzuk (9.3 oharra)	20,65			46.209,33	46.229,98

Ekitaldiko emaitza	51.343,69	3.456,26		-51.343,69	3.456,26
GUZTIRA	1.860.628,28	3.456,26	0,00	0,00	1.864.084,54

9.1. Kapital harpidetua

2018ko abenduaren 31n, Sozietatearen kapital harpidetua 300.859 akziok ordezkaten zuten (bakoitzaren balio izen-datua 6,01 euro zen). Akzio horiek guztiak Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu ditu, eta ondorioz Arabako Kalkulu Gunea SA foru sozietate publikoa da.

Kapital sozietateen Legearen 13. artikulua betez, pertsona bakarreko sozietate gisa inskribatu da Sozietatea Merkataritza Erregistroan.

9.2. Legezko erreserba

Kapital sozietatearen Legearen 274. artikulua arabera zuzkitu da legezko erreserba, zeinak ezartzen duen bertara bideratuko dela ekitaldiko mozkinaren % 10aren pareko kopuru bat, harik eta sozietatearen kapitalaren % 20ra, behintzat, iritsi arte.

Ezin da banatu, eta galerak konpentsatzeko erabiltzen bada, birjarri egin beharko da etorkizuneko mozkinekin, helburu horretarako beste erreserbarik eskura ez dagoen kasuetan.

9.3. Beste erreserba batzuk

Beste erretserba batzuen partida honela xehakatzen da:

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Borondatezko erreserbak (*)	46.209,33	0,00
Erreserba bereziak (**)	20,65	20,65
GUZTIRA	46.229,98	20,65

(*) Legezko erretserbara legez ezarritako zenbatekoa gehitutakoan, borondatezko erretserbak bat datoz aurreko ekitaldiko emaitzaren aplikazioarekin.

(**) Erretserba bereziak bat datoz 2001eko ekitaldian kapitala eurotara biribiltzeak eragindako aldearekin, eta ezin dira erabili.

10. OHARRA. ZERGA EGOERA

Sozietateak administrazio publikoekin dituen saldoak honako hauek dira (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
<u>Zerga arrunten pasiboak</u>	<u>702,90</u>	<u>12.082,27</u>
- Sozietateen gaineko zerga dela-eta hartzekodun den foru ogasuna	702,90	12.082,27
<u>Beste zor batzuk administrazio publikoekin</u>	<u>6.058,40</u>	<u>0,00</u>
- Gizarte Segurantza zorduna	6.058,40	0,00
<u>Beste hartzeko batzuk administrazio publikoekin</u>	<u>475.672,28</u>	<u>437.083,47</u>

- Foru Ogasuna hartzekodun PFEZagatik	321.576,62	292.403,80
- Gizarte Segurantza hartzekodun	154.095,66	144.679,67

10.1 Kontabilitate emaitza, zerga oinarri fiskala eta sozietateen gaineko zergaren gastua berdinkatzea

Kontabilitate emaitzaren eta sozietateen gaineko zergaren gastuaren arteko berdinkatzea honako hau da (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
<u>Kontabilitate emaitza, zergak aplikatu aurretik</u>	<u>4.159,16</u>	<u>63.425,96</u>
- Diferentzia iraunkorra	0,00	0,00
- Denbora diferentzia	0,00	0,00
<u>Aurretiko zerga oinarria</u>	<u>4.159,16</u>	<u>63.425,96</u>
Aurreko ekitaldietako zerga oinarri negatiboa	0,00	0,00
<u>Likidazio oinarria</u>	<u>4.159,16</u>	<u>63.425,96</u>
<u>Kuota osoa</u>	<u>1.081,38</u>	<u>17.759,27</u>
Kenkariak kuotan mugarekin	(378,48)	(5.677,00)
Kuotaren gaineko mugarik ez duten kenkariak	0,00	0,00
<u>Zerga arruntaren gastua</u>	<u>702,90</u>	<u>12.082,27</u>

2018ko ekitaldian, Sozietateak 378,48 euroko konpentsazioa egin du kuotan, "aktibo finko berriak eskuratzeagatiko kenkari" gisa. Era berean, 2017ko ekitaldian, sozietateak 5.677,00 euroko konpentsazioa egin zuen kuotan, "aktibo finko berriak eskuratzeagatiko kenkari" gisa.

2018ko eta 2017ko abenduaren 31n, sozietateak kenkari fiskal hauek ditu aplikatzeko (eurotan):

Kenkariaren izaera	2017.12.31n Konpentsatzeke	Sortutako ken- kariak 2018	2018ko JZn aplikatuak	2018.12.31n aplikatzeke
<u>2018</u>				
2018ko AFBko inbertsioak	0,00	61.947,94	(378,48)	61.569,46
<u>GUZTIRA</u>	<u>0,00</u>	<u>61.947,94</u>	<u>(378,48)</u>	<u>61.569,46</u>

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin daitezke eman behin betiko likidatutzat harik eta zerga agintariek aitortpenak ikuskatu arte edo bost urteko preskripzio epea pasatu arte.

2018ko abenduaren 31n, sozietateak zabalik dauzka, zerga agintariek ikuskatzeko, aplikagarriak zaizkion zerga nagusi guztiak, azken lau ekitaldietakoak.

11. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

11.1. Negozio kopuruaren zenbateko garbia

Honela banatu da ekitaldiko negozioren zenbatekoa (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
- Arabako Foru Aldundia	11.247.857,99	10.877.398,87
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	414.041,06	444.923,34
- Gazteriaren Foru Erakundea	47.101,54	51.067,08
- Arabako Batzar Nagusiak	83.717,00	87.886,43
- Artium	23.581,68	22.997,86
- Araba Garapen Agentzia SAU	16.223,74	12.787,66
- Abere S. Koop.	2.320,00	2.320,00
- Indesa	62.811,98	43.181,32
- Arabako Foru Mutualitatea BGAE	537,00	536,36
- Arabako suhiltzaileak	12.699,96	14.899,95
GUZTIRA	11.910.891,95	11.557.998,87

11.2. Ustiapeneko kontsumoak

Partida honetan, sozietateak azpikontrataturako zenbait enpresak egindako lanen ondoriozko zenbatekoak jasotzen dira.

11.3. Langile gastuak

Hona zehaztuta nola zegoen 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n (eurotan):

	Ejercicio 2018	Ejercicio 2017
- Sueldos y salarios	5.332.081,40	5.017.582,99
- Indemnizaciones	4.403,91	0,00
- Seguridad Social a cargo de la empresa	1.492.359,62	1.398.987,40
- Aportaciones a sistemas complementarios de pensiones	118.316,22	112.890,41
- Aportaciones a Mutua Foral de Álava	14.982,69	14.970,82
- Otros gastos sociales	64.063,06	102.383,39
TOTAL	7.026.206,90	6.646.815,01

“Beste gastu sozial batzuk” epigrafeak hau jasotzen du (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
- Seme-alaben jaiotzagatiko laguntza	234,00	1.800,00
- Langileen prestakuntza	35.205,86	71.744,77
- Ikasketetarako laguntzak	9.688,95	8.472,80
- Enpresako medikuntza	11.906,72	12.744,12
- Hizkuntza ikastaroak	4.578,90	4.315,50
- Maileguen interesen hobaria	2.448,63	3.306,20
GUZTIRA	64.063,06	102.383,39

12. OHARRA. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

12.1. Kapital dirulaguntzak

2018ko ekitaldian “Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak” partidan egon diren eta balantzearen ondare garbian agertzen diren mugimenduak eta galera-irabazien kontuan egotzitakoak hauek dira (eurotan):

KONTZEPTUA	Hasierako saldoa	Emaitzei egotzitakoa	Amaierako saldoa
IZENPE SAREN akzioak erosteko dirulaguntza	42.363,81	0,00	42.363,81
GUZTIRA	42.363,81	0,00	42.363,81

Arabako Foru Aldundiak 2002ko ekitaldian IZENPE SAREN akzioak erosteko eman zuen 99.540,00 euroko dirulaguntza ikus daiteke partida honetan (7. oharra).

18. erregistro eta balorazio arauak (NRV), finantza-aktiboak eskuratzeko emandako dirulaguntzak emaitzetan egoz-teari buruzkoak, ezartzen duenez, “diru sarrera gisa egotziko dira besterentzea, narriaduragatiko balio zuzenketa edo balantzeko baja gertatzen den ekitaldian”.

Irizpide horri jarraituz, dirulaguntza hori emaitzei egotzi zaie 7. oharrean adierazten den moduan.

Sozietateak bete ditu dirulaguntza hori emateko baldintzak.

12.2 Ustiapenerako dirulaguntzak

2018ko ekitaldian sozietateak irabazien eta galeren kontuan 15.418,40 euro inputatu ditu Hirutariko Fundazioak pres-takuntza hobariengatik emandako ustiapen dirulaguntza gisa.

13. OHARRA.- LOTUTAKO ALDERDIEKIKO ERAGIKETAK ETA SALDOAK

13.1. Eragiketak, lotura dutenekin

Lotutako alderdiekin egindako eragiketak sozietateak egindako zerbitzuak dira nagusiki; beheko taulan ekitaldiko era-giketak zehaztu dira (eurotan):

Erakundea	Zerbitzuak ematea		Jasotako zerbitzuak	
	2018ko ekitaldia	2017ko ekital-dia	2018ko ekitaldia	2017ko ekital-dia
Lotutako beste batzuk				
- Arabako Foru Aldundia	11.247.857,99	10.877.398,87	0,00	0,00
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	414.041,06	444.923,34	0,00	0,00
- Gazteriaren Foru Erakundea	47.101,54	51.067,08	0,00	0,00
- Arabako Batzar Nagusiak	83.717,00	87.886,43	0,00	0,00
- Artium Museoa	23.581,68	22.997,86	7.215,42	6.000,00
- Araba Garapen Agentzia SAU	16.223,74	12.787,66	0,00	0,00
- Indesa	62.811,98	43.181,32	0,00	0,00
- Arabako Foru Mutualitatea BGAE	537,00	536,36	0,00	0,00
- Arabako suhiltzaileak	12.699,96	14.899,95	0,00	0,00

GUZTIRA	11.908.571,95	11.555.678,87	7.215,42	6.000,00
----------------	----------------------	----------------------	-----------------	-----------------

13.2. Saldoak, lotura dutenekin

Taula honetan ageri dira 2018ko eta 2017ko abenduaren 31n lotutako alderdiekin ordaindu gabe zeuden saldoak (eurotan):

Erakundea	Merkataritzako saldo zorduna	
	2018.12.31	2017.12.31
<u>Lotutako beste batzuk</u>		
- Arabako Foru Aldundia	2.188.309,30	2.705.392,39
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	86.646,25	80.582,76
- Gazteriaren Foru Erakundea	40.463,30	27.611,13
- Arabako Batzar Nagusiak	0,00	14.649,73
- Artium Museoa	7.861,35	-247,96
- Araba Garapen Agentzia SAU	10.472,71	-0,02
- Indesa	28.744,28	16.196,91
- Arabako Foru Mutualitatea BGAE	537,00	536,36
- Arabako suhiltzaileak	3.174,99	9.933,30
GUZTIRA	2.366.209,18	2.854.654,60

13.3. Transakzioak, goi zuzendaritzako langileekin eta Administrazio Kontseiluko kideekin

2018ko eta 2017ko ekitaldian zehar, Administrazio Kontseiluko kideek ez dute inolako ordainsaririk jaso, eta ez daukate aurrerakinengatiko edo kredituengatiko saldirik Sozietatearekin. Era berean, Sozietateak ez du inolako betebeharririk, pentsioei eta bizi aseguruiei dagokienez, administrazio organoko kide izan direnekin edo gaur egungo kideekin, eta ez du haien konturako betebeharririk berme gisa.

Bestalde, Arabako Foru Aldundiak erantzukizun zibileko poliza bat harpidetu du sozietatearen administratzaileek dituzten arriskuak estaltzeko.

13.4. Egoerak non Kapital sozietatearen Legearen 229.3 artikuluan aipatzen diren interes-gatazkak gertatzen diren

Sozietatearen administratzaileek ez dute jakinarazi Sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapital sozietatearen Legearen 229.3 artikuluan ezarrita dagoen moduan.

14. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA

14.1 Auditoreen ordainsariak

Sozietateko kontuen auditoreek ekitaldian sortutako ordainsarien zenbatekoa, Arabako Foru Aldundiak ordainduko duena, honako hau izan da (eurotan):

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Kontu auditoretzagatik kargatutako ordainsariak	6.000,00	6.000,00

Beste ordainsari batzuk, zerbitzuak emateagatik	0,00	0,00
Guztira	6.000,00	6.000,00

14.2. Langileak

14.2.1. Batez besteko plantilla, kategoria eta sexuaren arabera

Ekitaldi honetan langileen batez besteko kopurua, lanbide kategorien eta sexuaren arabera banatuta, hauxe izan da:

	Gizonak		Emakumeak		Guztira	
	2018	2017	2018	2017	2018	2017
- Arloko arduraduna	4,25	4,43	2	2	6,25	6,43
- Foku unitatearen arduraduna	6	2,15	0	0	6	2,15
- Proiektuburua	10,13	10	5	5	15,13	15
- Aholkularia	3	5,07	3,99	3,27	6,99	8,34
- Kalitate kudeatzailea	1	1,67	0	0	1	1,67
- Programatzailea	2,5	1,25	1,5	0,79	4	2,04
- Funtzio analista	10,41	10,46	17,06	14,1	27,47	24,56
- Sistema analista	14,59	15,67	4,84	4,8	19,43	20,47
- Segurtasun analista	2	2	0	0	2	2
- Teknologia analista	3	3	0	0	3	3
- Laguntza teknikaria	0	0,5	0	0	0	0,5
- Ekoizpen teknikaria	2,87	2,86	2	2	4,87	4,86
- Administrazio teknikaria	0	0	1,82	1	1,82	1
- Sistemetako teknikaria	2,22	0,5	0	0	2,22	0,5
- Komunikazio kudeatzailea	0	0	0,67	0,9	0,67	0,9
- Administrataria	0	0	4,63	6,03	4,63	6,03
- Gidaria	1	1	0	0	1	1
GUZTIRA	62,97	60,56	43,51	39,89	106,48	100,45

Oharrak:

- 2018an 6 langilek izan dute erretiro partzial aurreratua; % 25eko arduraldia zenbatu da. Horrez gain, aldi baterako (sei hilabeterako) 7 langile kontratatu ziren eta beste 11k lanaldi murriztua izan zuten.
- 2017an 2 langilek izan dute erretiro partzial aurreratua; % 25eko arduraldia zenbatu da. Gainera, langile baten % 15eko arduraldia konputatu da, erretiro partzial aurreratuagatik; beste langile baten % 0,60ko dedikazioa konputatu da, erretiro osoagatik; eta beste langile baten % 58ko dedikazioa konputatu da, borondatezko eszedentziagatik.

Sozietateak 2018ko eta 2017ko ekitaldietan %33ko ezintasunarekin edo handiagoarekin lanean izan duen pertsona kopurua, batez beste, bi emakume izan da.

14.2.2. Langileak ekitaldia ixtean

Ekitaldia ixtean langile kopuru hau egon da, lanbide kategoriatan banatuta:

	31.12.2018	31.12.2017
- Arloko arduraduna	7	7
- Foku Unitatearen arduraduna	6	6
- Proiektuburua	16	15
- Aholkularia	7	7
- Kalitate kudeatzailea	1	1
- Programatzailea	3	3
- Funtzio analista	26	27
- Sistema analista	21	20
- Segurtasun analista	2	2
- Teknologia analista	3	3
- Ekoizpen teknikaria	5	5
- Administrazio teknikaria	2	1
- Sistemetako teknikaria	3	1
- Komunikazio teknikaria	1	1
- Administraria	6	6
- Gidaria	1	1
GUZTIRA	110	106

14.3. Informazioa hornitzaileei ordaintzeko epeari buruz

Hona hornitzaileei ordaintzeko epea, batez beste:

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	24,05 egun	-3,94 egun
Ordaindutako eragiketen ratioa	24,07 egun	6,90 egun
Ordaintzeko dauden eragiketen ratioa	9,00 egun	-29,86 egun
Egindako ordainketak, guztira	6.285.830,94 euro	4.744.538,46 euro
Egiteko dauden ordainketak, guztira	9.915,50 euro	1.984.329,56 euro

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko erabili den metodologia ekonomikoa uztailaren 25eko 635/2014 Errege Dekretuak, administrazio publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea kalkulatzeko metodologia garatzen duenak, ezarritakoa da. Dekretu hori abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldatu zuen.

Aurreko ahapaldian adierazitako aldaketaren aurretik indarrean zegoen araudiaren arabera egin ziren 2017ko ekitaldiko kalkuluak.

15. OHARRA. INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

15.1. Ingurumen arloko arauak betetzeari buruzko informazioa

Sozietatearen ezaugarriak kontuan hartuta, ez da gastu eta inbertsio handirik egin ingurumena babestu eta hobetzeko.

Egun, ez dago auzirik martxan, ezta horniduraren bat ezartzeko moduko ingurumen erreklamaziorik edo urteko memoria honetan adierazteko moduko gertakizunik ere.

15.2. Negutegi efektuko gasak botatzeko eskubideei buruzko informazioa

Sozietateak ez du dirurik gastatu 2018ko eta 2017ko ekitaldietan berotegi efektuko gasak botatzeak eragindakoa konpontzeko; gainera, gerora ez du kontraturik gisa horretako gasak botatzeko eskubideak eskuratzeari buruz.

Ez da 1/2005 Legean aurreikusitako zehapen edo behin-behineko neurrien inguruko kontingentziarik antzematen.

16. OHARRA. ITXIERAZ GEROZTIKO GERTAERAK

Ez da jazo erregistro eta balorazio araua aplikatzeagatik erantsitako urteko kontuen doikuntza dakarten inguruabarrak agerian jarri dituen ondorengo gertakizunik.

17. OHARRA. LANGILE GASTUAK ETA AFA-REN EKARPENAK

2018ko eta 2017ko ekitaldietako langile gastuen eta Arabako Foru Aldundiaren ekarpenen gaineko informazioa taula honetan dago jasota:

	2018ko ekitaldia	2017ko ekitaldia
Langile gastuak		
Kostua langileko	-65.986,17	-66.170,38
Langile gastuak	-7.026.206,90	-6.646.815,01
Plantilla	106,48	100,45
AFAREN ekarpenak	0,00	999.997,89
Kapital dirulaguntzak	--	--
Ustiapenerako dirulaguntzak	--	--
Galerak konpentsatzeko ekarpenak	--	--
Kapital handitzeak	--	999.997,89

“ARABAKO KALKULU GUNEA SA”
KUDEAKETA TXOSTENA – 2018KO EKITALDIA

Informatikarekin oro har loturiko ekintzak aurrera eramatean datzan gure jarduerak jarraitu du informatika programa berriak ezartzeko eta funtzionamenduan dauden postuak hobetzeko ildoan, haien kalitatearen etengabeko kontrola indartuz, eta kostuak benetan murrizten saiatuz.

Honako taula honetan azaltzen dira jardueraren magnitude nagusiak, aurreko ekitaldiarekin alderatuta (eurotan):

	<u>2018</u>	<u>2017</u>	<u>%</u>
Negozio zifra	11.910.891,95	11.557.998,87	% 3,05
Hornikuntza zifra	4.713.871,58	4.819.957,47	-% 2,20
Langile gastuak	7.026.206,90	6.646.815,01	% 5,71
Ustiapenaren emaitza	3.877,14	9.431,63	-% 58,89
Ekitaldiko emaitza	3.456,26	51.343,69	-% 93,27

Finantza-adierazleak (eurotan):

	<u>2018</u>	<u>2017</u>	<u>%</u>
Ondare garbia	1.864.084,54	1.860.628,28	% 0,19
Maniobra funtsa	1.119.377,15	1.371.541,32	-% 18,39
Ondare garbia / Pasiboa guztira	53,73%	42,70%	% 25,81
Diruzaintza	301.179,51	960.530,76	-% 68,64

Sozietateak espero du informatikarekin loturiko jarduerak, oro har, aspaldiko urteotan eraman izan dituen muga normalen barruan mantentzea. Gaur egun, ez dago inolako arrazoirik ez inguruabarrik haietan eragin kaltegarria izan dezakeenik.

Ekitaldi hau itxi eta gero, eta nahitaezko urteko kontuak aurkeztu arte, ez da ezagutzen inolako gertaera aipagarririk sozietatearen irudi zehatza emateko garrantzizko informazio gehigarria eskain dezakeenik.

Sozietateak ez du transakziorik egin bere kapitala osatzen duten akzioekin.

Kapital sozietateei buruzko legeak 253. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 2019ko martxoaren 28an, Gasteizen, ARABAKO KALKULU GUNEA SAREN administratzaileek honi erantsitako urteko kontuak sinatu dituzte, ados daudela adierazteko. Kontuen osagaiak honako hauek dira: balantzea; galera-irabazien kontua; aldaketen egoera ondare garbian; eskudiru fluxuen egoera; memoria (1. oharretik 17. oharrera; 1 - 26 bitarteko or.), eta kudeaketa txostena (27. or.)."

María Cristina González Calvar andrea
Lehendakaria

Adolfo Lander Vera jauna
Kontseilaria

Ana María del Val Sancho andrea
Kontseilaria

Iñaki Guillerna Sáenz jauna
Kontseilaria

Teresa Viguri Martínez andrea
Kontseilaria

María Ángeles Gutiérrez Ondarza andrea
Kontseilaria

Miren Saratxaga de Isla andrea
Kontseilaria

María Leyre Mora Carrasco andrea
Idazkari ez kontseilaria